# Gure auto ON–aseguruen modalitateak

LABORAL kutxa

| MODALITATEAK | Hirugarrenak Oinarrizkoa | Hirugarrenak Beirak | Hirugarrenak Plus | Arrisku Orokoa Plus |
|---|---|---|---|---|
| Nahitaezko Asegurua + Borondatezko E.Zibila | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Defentsa Penala + Ezohiko Arriskuak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Beirak haustea | | ✓ | ✓ | ✓ |
| **LAPURRETA + SUTEA** | | | | |
| Lapurretak eta Suteak egindako kalteak | | | ✓ | ✓ |
| Erabateko galera | | | ✓ | ✓ |
| Norberaren kalteak | | | | ✓ |
| Autoa erabat galtzea | | | ✓ | Superbaloratua(2) |
| Pneumatikoetako kalteak | | Aukerakoa | Aukerakoa | Aukerakoa |
| Markako Osagarriak | | | | 3.000 € |
| Giltzen kopia egitea | | | | ✓ |
| Kalte atmosferikoak | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| Animaliekin talka egitea | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| **DELUXE LAGUNTZA** | | | | |
| Bidaiako Laguntza zure autoarentzat | Km 0 | Km 0 | Km 0 | Km 0 |
| Bidaiako Laguntza zuretzat eta zure familiarentzat | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Atoian eramate zabaldua | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| Pertsonentzako laguntza zabaldua | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| Eguneroko bizitzarako laguntza | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| Osasun-laguntza | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| **FAMILIA BABESTUA** | | | | |
| Gidariaren istripu-asegurua heriotza/baliaezintasuna | 10.000 € | 20.000 € | 30.000 € | 30.000 € |
| Gidari superbabestua | | Aukerakoa | Aukerakoa | Aukerakoa |
| Defentsa oinezko edo txirrindulari gisa | | | ✓ | ✓ |
| Ordezko ibilgailua (Ezbeharra edo Ezbeharra + Matxura) | | Aukerakoa | Aukerakoa | Aukerakoa |
| Ibilgailua konpontzeko mailegua (3) | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| **GIDABAIMEN BABESTUA** | | | | |
| Isunen erreklamazioa + Isunen abisuak (posta e./SMS) | | ✓ | ✓ | ✓ |
| Gidabaimena kentzeagatiko kalte-ordaina (300 € hilabetean edo 1.500 € hilabetean) | | Aukerakoa | Aukerakoa | 300 € hilabetean |
| Puntuak berreskuratzeko ikastaroak | | Aukerakoa | Aukerakoa | ✓ |
| **AUTONOMOAK** | | | | |
| Etxe ondoko peritazioa | | | | Aukerakoa |
| Garraiatutako elementuen kalteak | | | | Aukerakoa |
| **DELUXE IZAPIDETZEA** | | | | |
| Izapidegile pertsonala | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Peritazioa 24 orduan | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Tailerra aukeratzeko askatasuna | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Lehentasuna konponketan eta deskontuak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ibilgailua garbitzea eta xurgagailua pasatzea | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| OKAuto Beirak (Etxe ondoko konponketa) | | ✓ | ✓ | ✓ |
| Konponketak gaizki egiteagatiko erreklamazioa | | | ✓ | ✓ |

(2) Erabateko galera Superbaloratua = Lehen hiru urteetan berritako balioa eta laugarren urtetik aurrera salmenta-balioaren % 130.
(3) Ibilgailua konpontzeko maileguak balioa izan dezan, LABORAL Kutxak onartu beharko du eragiketa, ohiko arrisku-irizpideen arabera.

## Besteengandik bereizten gaituzten ABANTAILAK:

- Garabia geolokalizazioarekin bidaltzea.
- Bidaiako laguntza 0 km-tik ibilgailuari eta pertsonei.
- Tailerra aukeratzekoaskatasuna.
- Diagnostiko-zerbitzua doan.
- Frankizia hobariduna300€edo gehiagoko frankizia-modalitateen aldaketetarako.

## Aukerako ESTALDURAK

| Aukerako ESTALDURAK | Urteko |
|---|---|
| Gidabaimena kentzea 300 € hilabetean | 16€ |
| Gidabaimena kentzea 1.500 € hilabetean | 84€ |
| Ordezko ibilgailua, ezbeharra gertatuz gero | 12€ |
| Ordezko ibilgailua, ezbeharra eta matxura gertatuz gero | 29,5 € |
| Pneumatikoetako kalteak | 10€ |
| Gidari Babestua | 10€ |
| Asistentzia Plus | 15€ |
| PACK PRO estaldura | 4,5€ tik |

Dokumentu honek ez du kontratu-baliorik aseguru-estaldurari buruzko ondorioei dagokienez. Prezio hauek orientagarriak dira eta ezinbesteko baldintza da Seguros lagun Aro S.A.k aurrez baimena ematea.

Erregistro Administratibo Berezian ov-0072 gakoarekin inskribatutako Caja Laboral Bancaseguros S.L.U. bankaseguruen operadore lotetsiaren bitartekaritzako asegurua. Erantzukizun zibila eta finantza-gaitasuna indarrean dagoen legediaren arabera estaliak. Arriskuaren aseguratzailea: Seguros Lagun Aro, S.A.

# BANKU GUZTIEK SALTZEN DITUZTE AUTOMOBIL-ASEGURUAK.

# GUK HASIERATIK BUKAERARA AZALDUKO DIZKIZUGU

## Zergatik eta zertarako automobil-aseguru bat?

Automobila da, etxebizitzaren ondoren, gure bizitzan egiten dugun inbertsiorik garrantzitsuenetako bat. Horregatik, garrantzitsua da, nahitaezkoa izateaz gain, behar bezala aseguratzea.

Honako hauek dira zure automobil-asegurua kontratatzeko arrazoiak:

1. **Nahitaezkoa delako.** Motordun ibilgailua duen edonork erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharra dauka legeak ezartzen dituen mugekin. Betebehar hori ez betetzeak zirkulatzeko debekua dakar, ibilgailua ibili ezinik gelditzea eta 601 eta 3.005 € bitarteko isuna.
2. **Ibilgailuan doazen senitartekoak eta ondarea babesten dituelako** zirkulazio-istripu batean gerta litezkeen kalteen aurrean.
3. Gure ibilgailuari eta bidaiariei eragindako kalteak hirugarren bati erreklamatzeko aukera ematen duelako.
4. **Ibilgailua bera babestu** (norberaren kalteak, beirak, lapurreta…) eta laguntza eskaintzen digulako matxura, isun eta abarretan.

## Zer estaltzen dizu gure Automobil-polizak?

### 1. NAHITAEZKO ASEGURUA, BORONDATEZKO ERANTZUKIZUN ZIBILA ETA DEFENTSAJURIDIKOA

Gure Automobil-aseguruaren oinarrizko estaldurak hauek dira:

- **Nahitaezko asegurua:** legeak eskatzen duen gutxieneko estaldura da, eta hirugarren batzuen aurrean gidariaren erantzukizun zibila soilik estaltzen du. Estalduraren mugak 70.000.000 €-koak dira kalte pertsonalentzat eta 15.000.000 €-koak, berriz, ondasunetan eragindako kalteentzat. Estaldura hori bera dute estatuan aritzen diren gainerako erakunde aseguratzaile guztiek.
- **Borondatezko erantzukizun zibila:** Nahitaezko Aseguruaren muga beste 50.000.000 €-rekin osatzen du. Estatuko merkatuan lan egiten duten aseguru- etxe guztiek eskaintzendute.
- **Defentsa juridikoa eta penala eta kalteen erreklamazioa:** zirkulazio-istripu batean hirugarren batek eragin dizkizun kalteen erreklamazioa egiteko gastuak estaltzen dira (kalteen erreklamazioa), bai eta defentsa-gastuak ere, zuk zeure automobilarekin hirugarren bati eragin dizkiozun kalteengatik (Defentsa juridikoa).

### 2. BEIRAK HAUSTEA

- **Beirak haustea:** aurreko, atzeko, alboetako edo eguzki-sabaia (seriekoa bada) konpontzea eta ordeztea estaltzen da, bai eta beira tindatuak edo eguzki-xaflak ere.

### 3. LAPURRETA ETASUTEA

- **Lapurreta:** ibilgailuaren edo ibilgailuaren zati finkoen lapurreta zein eragindako kalteak estaltzen ditu.
- **Sutea:** ibilgailuaren sutea estaltzen du, ibilgailua geldi nahiz zirkulatzen dagoenean, edozein delarik eragin duen kausa. Gainera, zure ibilgailuaren balioa handitzen dugu erabateko galera gertatzen bada.

Lagun Arok egiten duen erabateko galeraren balorazioak helburu hau du: ibilgailua benetako balioaren gainetik balioesten duten bezeroen asegabetasuna ahalik eta txikiena izatea.

### 4. AUTO BABESTUA

- **Berezko kalteak:** zure ibilgailuari eragindako kalte materialak estaltzen ditu. Arrisku Orotako modalitatean soilik sartzen da estaldura hori. Frankizia bat kontratatzea gomendatzen dugu (100 eta 600 € bitarteko frankizien artean hauta daiteke, ibilgailuaren balioaren arabera), primaren zenbatekoa gutxitzeko.
- **Frankizia hobariduna:** frankizia hobariduna murriztu daiteke aurreko urteetan ez bada ezbeharrik izan eta ibilgailua LAGUN AROK aukeratutako tailer batean konpontzen bada.
- **Ibilgailua erabat galtzea:** ibilgailuaren kalteen konponketaren zenbatekoa salmenta-balioa baino handiagoa denean.
- **Pneumatikoetako kalteak:** pneumatikoetako kalteak estaltzen dira, gurpila zulatu edo lehertzen bada.
- **Markako osagarriak:** seriekoak diren osagarri guztiak estaltzen dira; baita markako jatorrizko hautazkoak ere, 3.000 € arte, bestelako deklarazio beharrik gabe.
- **Giltzen kopia egitea:** aseguratutako ibilgailuaren giltzak galtzea estaltzen da.
- **Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea:** Arrisku Orotakoa kontratatu nahi ez baina beren ibilgailua zenbait gertakari atmosferikok —hala nola harriabarrak, elurrak, tximistak, haizeak— eragindako kalteetatik babestu nahi dutenentzat, baita animaliekin (etxeko animaliak barne) talka egitearen ondoriozko kalteetatik ere.

### 5. DELUXE LAGUNTZA

- **Bidaia laguntza:** zure ibilgailuarentzako laguntza estaltzen da 0 km-tik (atoian eramatea, erreskateak, gurpilak aldatzea, erregaia bidaltzea...), bai eta hoteleko gastuak edo pertsonak etxera zein helmugara eramateagatiko gastuak ere, konponketa epe laburrean ezin bada egin.

- **PLUS Laguntza:** estaldura hori kontratatzeahautazkoa da, eta berme osagarri hauek ditu:

  - **Atoian eramate zabaldua,** etxetik hurbil dagoen tailerra hautatu ahal izateko, matxura edonon gertatzen dela eta edozein dela larritasuna.
  - **Bidaia Aseguru** osoa, atzerriko gastu medikoak itzultzeko, 30.000€-rainokomugarekin.
  - **Eguneroko Bizitzarako Laguntza,** aseguratuak eta haren familiak etxeko lanak egiteko laguntza-zerbitzuak izan ditzaten, 48orduz baino gehiagoz ospitaleratzen badute.

- **Osasun Laguntza:** estalita daude larrialdiko laguntzen ondoriozko gastuak eta sendatzeko beharrezkoak diren gastuak. Aseguru Etxe askok kostu-mugak ezartzen dituzte estaldura honetarako, baina Lagun Aron estaldura horimugagabeadakostuaridagokionez urtebetez.

### 6. FAMILIA BABESTUA

ZURETZAT:

- **Gidariaren istripu-asegurua:** aseguratutako ibilgailuaren gidariak jasandako kalte pertsonalen kalte-ordaina estaltzen da, istripua aipatutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz gertatu bada eta heriotza edo baliaezintasun iraunkorra gertatu bada.

- **Heriotza:** 10.000 eta 30.000 € artekoa, kontratatutako modalitatearen arabera.

- **Baliaezintasun iraunkorra:** 10.000 eta 30.000 € artekoa eta baliaezintasun-mailaren araberako baremoa eginda.

- **Gidari superbabestua:** heriotza edo baliaezintasun iraunkor absolutua gertatzen bada, istripu- aseguruaren kalte-ordainari 50.000 €-ko kopurua gehituko zaio gidariarentzat eta 10.000 €-ko kopuru gehigarria mendeko seme-alaba bakoitzeko, Lagun Aroren polizaren bidez, gidariaren istripu-aseguruko kapitalarekin.

ZURE FAMILIARENTZAT:

- **Defentsa oinezko edo txirrindulari gisa:** oinezko edo txirrindulari gisa harrapatua izanez gero, defentsa penala eta kalteen erreklamazioa bermatzen zaio aseguru-hartzaileari, haren ezkontideari, eta etxe berean bizi eta ekonomikoki mendeko diren seme- alabei.

- **Ordezko ibilgailua:** alokairuko ibilgailua bermatzen da zirkulazio-istripua gertatzen bada, gehienez ere 15 egunez, ibilgailua konpontzeak 5 orduko lan-eskua gainditzen duenean.

- **Ibilgailua konpontzeko mailegua:** LABORAL Kutxak mailegua eskaintzen dizu aseguratutako ibilgailua konpontzeko, istripua eta matxura gertatu denean, oso baldintza onetan.(1)

### 7. GIDABAIMEN BABESTUA

- **Isun-erreklamazioa:** aparkamendu-isunen erreklamazioak ere egiten ditugu. Hori salbuespena da ohiko aseguru-konpainietan.

- **Isun-abisua posta elektroniko edo SMS bidez:** trafiko-arauak hausteagatik zuri jakinarazi gabe BOEn argitaratutakoisunedosalaketenberriemangodizugu.

- **Gidabaimena kentzea:** hileko sorospena estaltzen da gidabaimena kentzeagatik, hileko 300 €-ko kapitalarekin. Gainera, gidabaimena kendu badizute, ikastaroetako matrikulazioa ordaintzeko gastuak ere estaltzen dizkizu.

### 8. DELUXE IZAPIDETZEA

- **Peritazioa 24 orduan eta tailerra askatasunez hautatzeko aukera:** peritazioa bermatzen dugu 24 orduan eta zuk hautatutako tailerrean.

- **Konfiantzazko tailerrak:** gure tailer itunduen sarean kortesiazko ibilgailu bat erabiltzeko aukera izango duzu, zure autoa konpontzen dugun bitartean. Gainera, itxarote-denbora murrizten dugu, eta autoa kanpotik garbituta eta barruan xurgagailua pasatuta entregatuko dizugu.

- **Oqueicar Beirak:** beira konpondu edo ordeztuko dizugu, parterik eman edota etxetik mugitu behar izan gabe, eta zure hobariak berdin jarraituko du.

- **Konponketak gaizki egiteagatiko erreklamazioa:** baimendutako tailer batean konponketak gaizki egiteagatiko erreklamazioa adiskidetasunez edo auzibidez egiten dizugu. Konponketa hori istripuaren edo matxuraren ondoriozkoa izan daiteke, eta 300 € baino gehiagoko zenbatekoa izan behar da.

## BANKA ETA ASEGURUAK

OHARRA: dokumentu honek ez du kontratu-baliorik eta haren helburua da Automobil Aseguruetako estalduren zenbait kontzeptu argitzea. Bermeei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo Polizaren Baldintza Orokor eta Partikularretara.

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Arriskuaren aseguratzailea: Seguros Lagun Aro SA.

(1) Eskaintzak balioa izan dezan, LABORAL Kutxak onartu beharko du eragiketa, ohiko arrisku-irizpideen arabera.